

Altza

Plan Berdea, non?

Udalaren Plan Berdea hitzetik hortzera ibili da azken egunotan. Parkeak, berdeguneak eta oro har, ingurugiroa zaindu beharraz luze eta zabal hitz egiten ari da, baina hala ere, duela gutxi San Martzial plazako ertz batean ehun urteko zuhaitzak bota dituzte, Casa-Naoko bizilagunentzako errepidea egiteko.

Sara Soria

Joan den ostegunean, hilak 7, San Martzial plazako ertz batean zeuden ehun urteko zortzi platanondo lurrera bota zituzten. Izan ere, ehun metro baino gutxiagoko errepidea egin behar dute, Txapin-ene Casa-Nao auzoarekin lotzeko.

Arazoa da Casa-Naoko bizilagunek autoarekin auzoraino sartzeko buelta osoa eman behar diotela Kaskoari. Ale-

«Legalki egindako txikizio honek ez du zentzurik» Joan Mari Irigoien



Platanondo ederrak moztu izanak erabat haserretu ditu Altzako bizilagunak.

gia, Txapin-ene tik sarrerarik ez dutenez, itzulinguruka ibili behar dutela eta Larraunditik autoa etxeraino hurbildu. Horixe da errepide berriaren helburua, bide hori laburtzea.

Auzotarren salaketa

Udalaren erabakiak ustekabe harrapatu ditu auzotarrak, platanondoak moztu dituzten arte, ez baitzuten inongo berririk. Hurrengo egunean Altzako bizilagunek kartelak jarri zituzten Kaskoan zuhaitzak lurrera bota izana salatzen. Izan ere, aste bere-

an Udal Gobernuak Plan Berdea onartu zuen. Hori dela eta, altzatarrek harrিতuta daude. "Ironikoa iruditzen zaigu Udalak Plan Berdea onartu duen aste berean zuhaitzak eraitea. Planak Donostia berdea lortzeko 11 ekintza jasotzen ditu. Paradoxikoa", zioten kartelek. Auzotarrek adierazi dutenez, atzerabueltarik ez duen ekintza honek izugarri tristetu ditu eta horrez gain, azalpenak eskatu dituzte.

Bestalde, Joan Mari Irigoien idazle altzatarrek ere gogor salatu du arbolak moztu iza-


na. "Legalki egindako txikizio honek ez dauka zentzurik, errepide hori ez da beharrezkoa eta Kaskoan genituen zuhaitzik politenak akabatu egin dituzte", adierazi digu Joan Mari Irigoienek.

Zurrubilo formatu berriaz

Zurrubilo Altzako gazteen aldizkariaren azken alea heldu zaigu etxera bazkideoi, eta luze gabe Zumardi, Ipox eta Txalaka tabernetan eskuragarri izango duzue euro baten truke. Aldizkariaren seigarren zenbaki honetan formatu berri estreintatu du Zurrubilok, aurrekoa gehiegizkoa baitzen zegoen materialarentzat. Ondorengo gaiak topatuko dituzue bertan: gaztetxea, Auditz Akular proiektua, kontrapsikologia eta espioitza interneten.



Arriberrri, 7 ALTZA (Donostia) Kasaren Kultur Etxen eta Altza-Polikiroldegien ondoan eta autobusez bazatoz, hobe! Autobus lineak 13, H6, 24 eta 27



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA